

2002/06/21eko **prentsa-oharra****ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI)****2002ko maiatza**

BIDAIARIEN SARRERAK %17 ETA GAUALDIAK %8 IGO DIRA 2002KO MAIATZEAN

Gipuzkoa da hazkunde handieneko herrialdea: %27 bidaiari gehiago eta %15 gaualdi gehiago

2002ko maiatzean, 143.468 bidaiari-sarrera errolatu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 21.000 sarrera gehiago gutxi gorabehera, hau da, %17ren gehikuntza, Eustatek eskaintzen dituen datuen arabera. Bidaiarien sarrerak igo egin dira hiru herrialdeetan, modu desberdinean bada ere: %6 hazi dira Araban; %13 Bizkaian, eta % 27 Gipuzkoan.

Estatutik datozen bidaiarien sarrerak %17 igo dira, ia atzerriko bidaiarien kopuruak lortu duen gehikuntza berdina (%18). Estatutik datozen bidaiariak igo egin dira Bizkaian eta Gipuzkoan (%16 eta %27, hurrenez hurren), eta ia egonkor iraun dute Araban; atzerriko bidaiariak, aldiz, %26 igo dira Araban zein Gipuzkoan; Bizkaian, berriz, gehikuntza neurritsuagoa lortu dute (%7rena).

Estatutik datozen bidaiarien artean, igo egin dira autonomia-erkidego guztietatik datozenak, batez ere Madrildik eta Valentziako Erkidegotik etorriak, bai eta Euskal AEtik beretik datozenak ere. Atzerriko bidaiarien artean, aipatzekoa da Frantziatik datozen bisitariak izan duten gehikuntza, bai eta AEB-Kanadatik datozenen jaitsiera ere.

2002ko maiatzean izandako gaualdiak 255.660ra iritsi dira, hau da, aurreko urteko aldi berean baino ia 20.000 gehiago, hau da, %8 igo dira ehuneko-balioetan. Egindako gaualdien kopuruak %3ren hazkundera izan ditu Bizkaian, %6rena Araban, eta %15ena Gipuzkoan.

Euskal AEko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien batez besteko egonaldiaren iraupena uzkuritu egin da 2002ko maiatzean, eta iazko 1,93 egunetik aurtengo 1,78 egunera pasa da. Batez besteko egonaldiak jaitsiera handiagoa izan du Gipuzkoan (%-10) eta Bizkaian (%-8), ezen ez Araban (%-1).

Plazako betetze-maila %2 igo Euskal AE osoan, Gipuzkoan izan den %8ren gehikuntzaren ondorioz; Bizkaian, aldiz, %2 jaitsi da, eta Araban aurreko urteko betetze-

maila errepikatu da. Gelako betetze-maila, berriz, %3 jaitsi da Euskal AEn, Arabako eta Bizkaiko jaitsierengatik (%-7 eta %-8, hurrenez hurren); Gipuzkoan, aldiz, gelako betetze-maila %6 hobetu da 2002ko maiatzean, aurreko urteko hil beraren aldean.

Nekazalturismoa: gaualdiak (%-40) eta bidaiarien sarrerak (%30) igo egin dira

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 5.732 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2002ko maiatzean, aurreko urtean baino %30 gehiago: %44 hazi dira Bizkaian, %36 Gipuzkoan, eta ia egonkor iraun dute Araban.

Egindako gaualdiak 12.787 izan dira, hau da, 2001eko maiatzean baino %40 gehiago, eta hori Euskal AEko hiru herrialdeetan gertatu da, batez ere Gipuzkoan, non gaualdiak %73 gehitu baitira, 2001eko maiatzaren aldean.

Batez besteko egonaldia %7 hazi da Euskal AE osoan, baina herrialdeek portaera desberdina erakutsi dute: batez besteko egonaldia igo egin da Gipuzkoan (%28) eta Araban (%15), eta jaitsi, Bizkaian (%-14), aurreko urteko hil beraren aldean.

Argibide gehiagorako, deitu hona:

 Eustat	Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz Tel:+34 945 01 75 00 Fax:+34 945 01 75 01 E-mail: eustat@eustat.es Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Tel:+34-945-01 75 06 Fax:+34-945-01 75 01 Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
---	--

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA/ALAVA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
2002/05	%	2001/05	%	D%		2002/05	%	2001/05	%	D%		2002/05	%	2001/05	%	D%		2002/05	%	2001/05	%	D%	

HOTEL ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARIEN SARRERA	143.468	100	122.548	100	17	25.556	100	24.019	100	6	55.934	100	49.658	100	13	61.978	100	48.871	100	27
Estatukoak	95.145	66	81.638	67	17	18.475	72	18.387	77	0	37.902	68	32.806	66	16	38.768	63	30.445	62	27
Atzerrikoak	48.323	34	40.910	33	18	7.081	28	5.632	23	26	18.032	32	16.852	34	7	23.210	37	18.426	38	26
GAUALDIAK	255.660	100	235.968	100	8	44.308	100	41.801	100	6	99.919	100	97.013	100	3	111.433	100	97.154	100	15
Estatukoak	172.363	67	155.853	66	11	32.754	74	33.061	79	-1	64.658	65	61.926	64	4	74.951	67	60.866	63	23
Atzerrikoak	83.297	33	80.115	34	4	11.554	26	8.740	21	32	35.261	35	35.087	36	0	36.482	33	36.288	37	1
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,78		1,93		-8	1,73		1,74		-1	1,79		1,95		-8	1,80		1,99		-10
PLAZAKO BETETZE MAILA	47,67		46,59		2	52,18		52,04		0	45,77		46,86		-2	47,81		44,33		8

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARIEN SARRERA	5.732	100	4.413	100	30	1.054	100	1.058	100	0	2.229	100	1.550	100	44	2.449	100	1.805	100	36
Estatukoak	5.259	92	3.823	87	38	935	89	1.002	95	-7	2.105	94	1.377	89	53	2.219	91	1.444	80	54
Atzerrikoak	473	8	590	13	-20	119	11	56	5	113	124	6	173	11	-28	230	9	361	20	-36
GAUALDIAK	12.787	100	9.159	100	40	2.311	100	2.013	100	15	4.778	100	3.855	100	24	5.698	100	3.291	100	73
Estatukoak	11.424	89	7.566	83	51	1.997	86	1.952	97	2	4.233	89	3.264	85	30	5.194	91	2.350	71	121
Atzerrikoak	1.363	11	1.593	17	-14	314	14	61	3	415	545	11	591	15	-8	504	9	941	29	-46
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,23		2,08		7	2,19		1,90		15	2,14		2,49		-14	2,33		1,82		28
PLAZAKO BETETZE MAILA	19,93		15,56		28	19,67		17,94		10	23,42		21,29		10	17,79		11,14		60

Iturria: EUSTAT